



8/2020 TXOSTENA, UZTAILAREN 29KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRENA.

GAIA: ONDARE ETA KONTRATAZIO ZUZENDARITZAK UZTAILAREN 29AN EMANDAKO 3/2020 ZIRKULAR- PROPOSAMENA, OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOARI BURUZ

I.- AURREKARIAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko obra baten zuzendaritza fakultatiboan sartutako zerbitzuren bat kanpora ateraz gero gauzak nola liratekeen zeharka aipatu izan da obra-pleguen bidezko kontratazio-dokumentazioan, horietan egoten baitira jasota zuzendaritza horretan diharduten profesionali dagozkien betebeharratik batzuk.

Horrela, bada, zerbitzu-kontratuen pleguetan ez zen agertzen profesional horien betebeharrak eta ahalmenen sekuentzia oso eta ordenaturik, eta batzuetan Administrazioaren eta kontratisten obligazioak zirelakoan agertzen ziren, edo alderantziz, eta ez zen argi geratzen nork burutu behar zuen zeregin zehatzen bat.

Azken kasu horien artean, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren 2018ko martxoaren 16ko txostenak, eraikuntza-obrak egin ondoren burutu beharreko administrazio-jarduketei buruzkoak, agerian utzi zuen beharrezkoa zela obra berrien inskripzioa bizkortzea. Horretarako, beharrezkoa zen zehaztea nork eta zer baldintzatan aurkeztu behar zuen lehen erabilerako lizentzia lortzeko eta obra inskribatzeko dokumentazioa.

Kontsultaren bate do beste ere egin zitzaion Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, zuzendaritza eta ikuskapeneko lan fakultatiboak egiteak sortzen zuen tasa ordaintzea nori zegokion jakiteko, eta tasa hori kontratu txikietan ere sortzen ote zen argitzeko.

Azkenik, eta hain zuzen ere kontratu txikiei dagokienez, behin baino gehiagotan

zalantzak sortu dira halakoetan zuzendaritza fakultatiboa kanpora zitekeen ala ez jakin ezta.

Horri guztiari irtenbidea emateko jarraibide batzuk ezartzearen, zirkularra mamitu dute, eta haren gaineko txostena da honakoa.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaez egin behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).7 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak emandako zirkular-proposamena baita, kontratazio publikoaren inguruko kontuei buruzkoa.

III.- OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN GAINEKO ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duenak, zuzendaritza fakultatiboaren figura dakar jasota, 62. artikuluan, eta dio hura dela obra-kontratuaren arduradun-eginkizunak bete behar dituen obra-kontratuaren bide batez, Legearen 237. artikulutik 246.era bitartekoak (obra-kontratu gauzatzeari buruzkoak) erreferentzia denez.

Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legeak (Erregelamendu Orokorren urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak) 139. artikulutik 179. artikulura bitartekoetan, hainbat ataletan, zuzendaritza fakultatiboak burutu beharreko jarduerak jasotzen ditu, bereziki obra-zuzendaritzari dagozkionak, hala nola, obra-kontratuaren erregulatu, aldatu eta azkentzea.

Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legeak arautzen ditu eraikuntza-prozesuaren etapak, eragileak eta dokumentazioa, erantzukizunak eta abar, eta berriaz arautzen ditu "Obra-zuzendaria" (12. artikulua) eta "Obraren egikaritzeko zuzendaria" (13. artikulua).

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legearen Testu Bategina onartu

zuen, eta testu bategin horren 46.etik 49.era bitarteko artikuluek arautzen dute zuzendaritza-tasa, zirkularrean ere aipatzen dena.

IV.- ZIRKULAR-PROPOSAMENA.

Orain Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena behar duen zirkular-proposamenaren bidez, Zuzendaritza Fakultatiboaren eginbeharren eta ahalmenen sistematika kronologikoa ezarri nahi da, baita horri buruzko kontu garrantzitsuak ere.

Horrela, Lehenengo Gidalerroak Zuzendaritza Fakultatiboak obra orotan dituen betebeharrei buruz hitz egiten du, bertan dauden inguruabarrak edozein direla ere.

Bigarren gidalerroan ahalmen jakin batzuk zehazten dira, Zuzendaritza Fakultatiboak puntu bakoitzean azaltzen diren baldintzak gertatzen direnean baino ez dituenak gauzatuko: lan-programa, materialen saiakuntzak eta analisiak, ezinbesteko kasuak, konturako ordainketak aldeztatik bertan behera uztea, etab.

Bi gidalerro horiek dagozkien zerbitzu-kontratuetan sartu behar dira, zuzendaritza fakultatiboa ez badarama administrazioak berak; beraz, dagozkien kontratazio-pleguetan sar daitezela agindu du zirkularrak.

Hirugarrenak lehen erabilerako lizentzia lortzeko eta obra berria Jabetza Erregistroan inskribatzeko beharrezkoa den dokumentazioaren zerrenda xehea egiten du, baldin eta lehendik dauden eraikinak handitzeko edo eraikitzeko obrak badira.

Laugarrenak zuzendaritza- eta ikuskapen-tasa sortzeko zergapeko egitatea zein den zehazten du, eta argi eta garbi ezartzen du zergapeko egitate hori noiz gertatzen den eta tasa nork ordaindu behar duen.

Bosgarrena eta azkena zuzendaritza fakultatibo bat kontratu txiki baten bidez esleitzerik izateko baldintzei buruzkoa da.

Horrek guztiak txosten honen III. atalean jasotako araudia banakatu, ordenatu eta errespetatzen du.

Azaldutakoagatik, **ALDEKO TXOSTENA** eman diogu zaio ONDARE ETA KONTRATAZIO ZUZENDARITZAK OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOARI BURUZ UZTAILAREN 29AN EGINDAKO 3/2020 ZIRKULAR-PROPOSAMENARI.